

Gasteiz-Trento: 3€

Negu arraro honetako ohiko astelehen bat zen, Gasteizko eguerdiko eguzkiak kiskaltzen zaituen horietakoa. Betiko ibilbidea egiten ari nintzen, unibertsitateko autobus geltokira. Katedral berriaren ondotik pasatzerakoan, han ikusi nuen irakasleak behin baino gehiagotan aipatutako museoa, eta jakin-minak bultzatuta, bertara sartzea erabaki nuen.

Zuzenean harira joko dut. Koadro bat izan zen ni erakarri ninduen, Alonso Canoren *Sortzez Garbia*, hain zuzen ere. Arreta deitzearen arrazoia ez zen izan margoa bera, haren garai historikoan izan zuen esanahia baizik. Unibertsitateko irakasleen aholkuei jarraiki, badirudi hori dela etorkizuneko historialariok egin behar duguna, objektu edo eraikin historikoen atzean dagoena aztertzen eta ulertzen saiatu.

Artelan hori fakultatean jasotako azalpenekin lotzeko gai izan nintzen, baita bere balio historikoa ikusteko ere. 1650 inguruko lana da, *Sortzez Garbia*, hots, Maria birjina gisa irudikatzen duena. Ez naiz sinestuna, baina beti erakarri nau Elizak, ez soilik ikuspuntu artistiko batetik, baita historikotik ere, garai ezberdinetan izan duen botereak harritzen bainau. Ezbairik gabe, koadro hori Elizak izandako garrantziaren adierazle nagusietako bat da.

Kronologikoki, eta estiloa kontuan hartuta, Barrokoari dagokio, Weisbachek Kontraerreformako arte gisa izendatu zuenari, alegia. Modu laburrean, eta hariaren korapilora joz, esan genezake mugimendu hori Erreforma Protestantearen aurkako erreakzioa izan zela.

Lutero eta beste hainbatek auzitan jarri zuten Eliza Katolikoaren bitartekaritza lana, Jaungoikoarengana iritsi ahal izateko. Horri erantzun sendo bat emateko Aita Santuak Trentoko Kontzilioa deitu zuen. Hain zuzen ere, bertan hausnartutako gaietako bat artearen erabilpenaren ingurukoa izan zen, hots, horrek dogmaren predikazioan izan behar zuen garrantziarena. Horren

bidez, artea eta bereziki santu eta amabirjinaren irudikapenak Eliza Katolikoaren mezua zabaltzeko tresna bihurtu ziren.

Canoren lanean ikus daitekeen bezala, Ama Birjinak jainkotasuna islatzen du, era berean, gizakia ere bada, bere semearen heriotza sufritu duena; bitartekaria da, elizaren eta lurraren artekoa. Andre Mariak Eliza ordezkutzen du, eta beraz, Jainkoarengana iristeko bidea eskaintzen du.

Hementxe dugu, beraz, Gasteiz erdian eta guztientzat ikusgai, Trentoko Kontzilioan hartutako erabakietako bat ordezkutzen duen pieza. Balio historiko ikaragarria du eta, hala ere, gure errutina apurtzeko ditugun zailtasunengatik, ez diogu arretarik eskaintzen katedralaren ondotik igarotzerakoan.

Azalpen historikoak alde batera utzita, ondorio zehatzetara iritsi nahi dut, bisitak nigan eragindakoaren harira. Badakit historian eta artean interesik ez duen jende ugari dagoela, eta are gutxiago, museoak gogoko dituen; horiek guztiek duten garrantzia erakutsi ez diguten seinale da hori. Horretarako, aski da aztergai dugun margoa adibidetzat hartzea, argi ikusten baita ideiak gizarteratzeko izan zuen eragina. Oro har, arteak eta historiak artelanen esanahia erakutsi diezagukete, eta horrek ematen die erakargarritasuna.

Bestalde, Elizak bere baitan hartzen duen bitartekaritza lan hori, Jainkoaren eta gizakion artekoa, museoekin aldera genezake, historiaren eta gaurkotasunaren arteko zubiak baitira, lehenaldiaren eta orainaldiaren elkarguneak. Ez genuke, beraz, inoiz ahaztu behar duten garrantzia, eta orokorrean historiak berak duena.

Modu batez edo bestez baldintzatu gaituen iragan hori parez pare ikusteko aukera duzunean, ttak, gelditu, egunerokotasunetik atera, zuretzat denbora hartu, gozatu, eta une batez bidaiatu, hegazkin txartelik gabe, Gasteizko Katedraletik Trentoko Kontziliora.